

DIRU-SARRERAK

Prezio finkoak eta dinamikoak:

Saltzen dugun produktu bakoitzak bere prezio bera izango du; sagarrak 1,5€/kg edo Idiazabaleko gazta ziria 4,5€-tara, arrainen araberako bataz besteko prezioa...

Bestalde ezaugarrien araberako prezioa esan nahi duena da gure prezioak kalitatearekin bat datozela, esate baterako, produktu batek kalitate ona baldin badu ez du izango prezio berdina kalitate rik ez duen batekin konparatuz. Arraina edo barazkiak bezalako produktuetan aplikatuko ditugu, horiek tokikoak izanik, freskoak eta kalitate hobekoak direlako.

Baita ere, aurki dezakegu bolumenaren araberako prezioa, esaterako, produktu batek arrakasta asko baldin badu merkeago jarriko da, edo webgunearen bidez eskari handi bat jasotzen badugu, prezioan deskontuak aplikatuko dira. Honen adibide bat da promozioak hau da produktu bat erosten baldin baduzu, bigarrena adibidez %20-ko deskontu bat izango duzu. Eta horren ondorioz produktu hori arrakasta izango du.